BEHARGINTZA

Behar Hitza

Leioako Behargintza

2014ko, 03º

LEIOAKO BEHARGINTZA SOCIAL INNOVATION CHALLENGE-ko AHOLKULARIEN PANELEAN:

Martxoaren 3, 4 eta 5ean, **"DiogoChallenge"** izeneko markoaren barruan, xede soziala duten negozioak garatzeko lehiaketa, Europako gazteei zuzendutakoa, Europako Batzordeak (DG Enpresa) aukeratutako 30 berrikuntza proiekturik onenekin eginiko mintegia izan zen Bilbon (aurtengo proiektuen ardatza, enplegu sorkuntza da). Mintegiaren xedea zen aurkeztutako proiektuak (mentoring saioen bidez lehiaketako final erdietara heldu direnak) hobetzea, hautaketa prozesuko azken faseari begira. Bilboko Mintegia Europako Batzordeak (DG Enpresa) antolatu du "Basque Social Innovation" sarearekin batera (Innobasque kide da beste 15 erakunderekin batera, publikoak zein pribatuak).

Prozesu hori burutzeko, **Social Innovation Academy** osatu zen, mentoring lana egiteko ardura zuten 17 pertsonarekin, eta hiru egun horietan zehar, finalistei lagundu egin zieten proiektuaren berrikuntza definitzen enpleguari zegokion orotan, baita bideragarria ote zen Europako Batasuneko beste leku batzuetara eramatea ere. **LEIOAKO BEHARGINTZAk akademia horren parte izateko ohorea izan du, elkarrekin ikasteko aukera, eta bide batez, Europan sare berriak sortu**.



Gizarte Berrikuntzaren sariak Diogo Challenge izena dauka, Diogo Vasconcelosen omenez, energia eta karisma handiko pertsona. Ez zion inoiz utzi mundu hobea zelan egin pentsatzeari. Bere gogoekin, munduan, gizarte berrikuntzaren aldeko korrontea mugiarazi zuen, erronka sozialei aurre egiteko bide berriak pentsatzeari zuzendua, hala nola, aldaketa klimatikoa, langabezia eta populazioa zahartzea.

Bere ikuspegia zen pertsonek bati zutela zer ikasi besteengandik, eta Gizarte Berrikuntza tresna bat zen beharrizan eta arazo sozialak eraldatzeko, eta horrela, enpleguak eta aukera ekonomikoak sortu. Zoritxarrez, 2011n zendu zen, 43 urterekin, baina bizirik diraute bere ideiek eta denon ardura da lanean jarraitzea parekideagoa izango den gizarte baten oinarriak jartzeko.

Merkataritza bizirik Leioan

Martxo honetan, Behargintzan tokiko merkataritzarekin buruz buru jarraitu dugu lanean.

Hilaren hasieran, gure etxeetan MBPBn dauden merkatarien publizitatea jaso genuen. Merkatari horiek batu egin dira herritarroi jakinarazteko merkataritza urbanoak ere, baduela guretzako eskaintzarik. Gainera, inauteriak izanik, jaia poztu nahi izan ziguten eta bi pertsonentzako bidaia zozkatu zuten, erosketak egitera mozorrotuta zihoazenen artean.

Martxoaren 12an, Mari Carmen Urbietak, Leioako Alkatea, eta Montxu Martinezek, CECOBIko presidente ordea, Merkataritza Berdeko 16 ziurtagiriak eman zituzten. Ziurtagiri horiek tokiko merkataritzak jasangarritasun eta ingurugiroan duen interesa erakusten dute. Montxuren hitzetan, Leioak inguruko udalerriek baino ziurtagiri gehiago dauka batez beste, %20 gehiago, hain zuzen ere. Zorionak gure merkatariei.

Martxoaren 13an, SOLASGUNErekin egon ginen, baita ezagutza zabaldu nahi duten merkatari batzuekin ere. Pentsa genezake merkatari batek gutxi duela kontatzeko, baina SOLASGUNEk erakutsi zigun bezala, erakusleihoak produktu bat egiteko prozesuarekin apaintzea edo jateko landareen erneketarekin, asko gustatu zitzaien umeei aurreko urteetan. Hainbeste gustatu zitzaien, non ikasten jarraitu nahi duten gainerako herritarrekin.

Azkenean, martxoaren 18an, MBPBko batzar bat izan genuen. Proposatu genuen aktibo dauden 3 taldeak batzea, gai asko zeharkatuak zirelako eta ezinezkoa zen talde bakar batean sartzea. Horrela, ikuspegi bateratu batetik, jarduerak aberastu ahal izango ditugu. Gogoratu lan taldean izena eman dezakezuela.

PROIEKTU ETA ENPRESA DIGITALAK

Gaur egun, ezinbestekoa da enpresak digitalizatzea merkatuaren beharretara egokitzeko, lehiakortasuna hobetzen laguntzen duelako. Hori dela eta, erakunde publikoek prozesu hau bultzatzen dute programa desberdinen bidez. Hauek dira duela gutxi argitaratutako bi:
HOBEKI + DIGITAL @ eta LANKIDETZA +DIGITAL@

HOBEKI + DIGITAL @
Programa honen helburua da, batetik, IKTen bidez, ETEen barne prozesuak eta ETEek bezeroekin, hornitzaileekin eta administrazioekin dituzten harremanak digitalizatzen laguntzea, ETE horien lehiakortasuna ahalbidetu eta sendotzeko; helburu hori erdiesteko, «Hobeki + Digital@» ekimena baliatuko da.
Jarduera ekonomikoren bat egiten duten eta honako baldintzak betetzen dituzten enpresak izan daitezke onuradunak:

a) ETEak izatea.
b) Euskal Autonomia Erkidegoan, jarduera ekonomikoko zentro bat edukitzea.
c) Diruz lagun daitekeen jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan egitea.
d) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea, bai eta SPRI Taldearekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko betebehar oro beteta edukitzea ere.

LANKIDETZA +DIGITAL@
Programa honen helburua da IKTak euskal enpresa-sarearen eskura jartzen laguntzea; horretarako, laguntza emango zaie enpresa-taldeek EAEn garatutako eta enpresa- eta/ edo profesional-elkarteek sustatutako lankidetza-proiektuei.
Kasu honetan, onuradun izan daitezke enpresa eta/edo profesional-elkartearen izaera duten pertsona juridikoak.

Programa bietan eskaera aurkezteko epea 2014/09/23an bukatuko da.

Informazio gehiago

Orientazioa

Hezkuntza orientazioa oso garrantzitsua da ikasleen prestakuntzan, helburuen artean, hezkuntza prozesuaren kalitatean eragiten duten aspektuak hartzen baititu.

Gizartea aldatu da, eta gizartearekin batera, eskola. Hori dela-eta, azken urteotan, orientazioa gako da hezkuntza prozesuan, haurtzarotik, bizitzan zeharreko ikasketa prozesu legez.

Ezinbestekoa da Hezkuntza Administrazioak gutxieneko oinarriak jartzea kalitatean oinarritutako orientazioa ereduari, ikasle guztiei (hezkuntza beharrizanak dituztenak zein ez) arreta ematen dieten profesionalen lanean oinarritua, ikasleei aholku eman diezaieten eta familiei orientazioa eman. Irakasleek laguntza behar dute halako gaietan: aniztasuna lantzea, taldekatze malguagoak, hezkuntzara aplikatutako IKTk, ebaluazioa, tutoretza, edo besterik gabe, ikasgelan bizikidetza hobetzeko neurriak.

Gizarte berri honen aurrean, informazio eta komunikazio sareek eta irakatsi eta ikasteko modu berriek konfiguratuta, irakasleen papera ezinbestekoa da, ikasleak prestatu behar baitituzte gizartean eta lan-munduan dagokien lekua okupa dezaten. Irakasleen eginkizuna aldatu egin da, baina azken helburua berbera da: ikasleari bere bizitza-proiektua eraikitzen lagundu.

Euskara doan ikasi nahi duzu, zure ordenagailuan eta zure etxetik? Irakurtzen jarrai ezazu!!

Ikasten.net euskara ikasteko baliabide didaktikoa da, munduko edozein tokitan diren pertsona helduei euskara helarazteko metodologiaz diseinatuta, interfas atsegin eta informalarekin. Ataletan antolatutako 60 unitate didaktikokoa da ikastaroa, eta errepasorako 12 unitate eta hainbat ekintza dakartza ere: audioak, bideoak eta hainbat motatako ariketak.

Izena ematea oso erraza da: Lehenbizi hiru.com-eko **erabiltzaile kontua** behar duzu. Ondoren, Ikasten-era itzul zaitez, izena emateko formularioa zure datuekin bete ezazu eta has zaitezke.

Ikastaroko sarrera unitatean programa erabiltzen jakiteko jarraibideak aurkituko dituzu, eta hortik aurrera zure maila zehaztu eta hobe datorkizun unitate didaktikotik hasita jarri ahal izango zara lanean. Hasiberrientzako eta gehiago dakitenentzako mailak ditu ikastaroak; lortu ahal izango duzun maila zein izango den jakiteko, kontsulta ezazu **baliokidetasun taula**.

Auto-ikaskuntza ikastaroa denez, eta ikaslearen lanean parte hartzen duen tutorerik ezta irakaslerik ez dagoenez, ezin daiteke lortutako maila bermatu. Beraz, ikastaroa betetzeagatik ez zaizu titulurik ezta ziurtagiririk emango.

Ikasten.net euskara ikasteko baliabide didaktikoa **hiru.com** atariko ekimenetako bat da, eta **Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren mendekoa**.

HILABETEKO AGENDA

03/04/2014: Zamudio. **Tus clientes potenciales (nacionales e internacionales) te están buscando en Internet.**

07/04/2014: Barakaldo. **Twitter: handitu eta neurtu zure eragin soziala.**

08/04/2014: Getxo. **Evernote: antolatu zure negoziariaren informazioa.**

10/04/2014. Zamudio. **Gamifikatzea: bezeroen eta langileen konpromisoa lortzeko.**

28/04/2014: Donostia. **Zure online salmentak gehitu Google Shopping bidez.**

DIRULAGUNTZAK

IRAGARKIA (EHAA 52zk./2014) , **«Innobideak-Lehiabide» ingurune globaletan enpresen lehiakortasuna areagotzeko Programa**ren araudia onartzeari buruzkoa.

IRAGARKIA (EHAA 52zk./2014) , **«Innobideak-Kudeabide» programaren araudia onartzeko dena (Sendotze-proiektuak. Euskal enpresan lehiakortasuna** katalizatzeko kudeaketa aurreratua).

ANUNCIO del 17 de Marzo de 2014 (BOPV Nº 52/2014) , de aprobación de la normativa por la que se regirá el **Programa «+Digital@»**.

IRAGARKIA, **enpresa txiki eta ertain, bakarkako enpresaburu eta profesional autonomoentzako finantza-bide bati buruzkoa. 2014an finantza-laguntza emateko Programa**.

Nor ezagutzen dugu....? "Ofimavi"ko

Angel Manrique

1- Zure burua aurkez diezaiekezu zu eta zure enpresa ezagutzen ez dutenei?

Nire izena Angel da. Leioako Ofimatica Maviren dendaren jabea naiz. Ofimatica Mavi espezializatuta dago hauetan guztietan: bulegoko ekipoen mantenua eta aholkularitza, altzariak, osagarriak hornitzea (paper suntsigailuak, gillotina, koadernagailua) , idazteko eta kalkulatzeko makinak, fotokopiagailuak, inprimagailuak, ordenagailuak, kudeaketa softwarea, hardwarea, mugikorrak, etab. Gure abala da gure esperientzia luzea. Ez daukaguna bilatuko dizugu.
OFIMATICA MAVI S.M. 2004ko azaroan sortzen da, bulegotikan 20 urte baino gehiagoko esperientzia duten profesionalekin, etorkizuneko teknologiaren aldeko apustu egiten dutenak eta Leioako merkataritzarekin konprometituak.
.

2- Merkatarien Elkarteko presidente izanik, zer pentsatzen duzu Leioaz eta bertoko merkataritzaz?

OFIMATICA MAVI Leioako Merkatarien Elkarteko kide da duela 9 urte, eta elkartearen proiektuetan sinesten dugu. Elkarteko presidente izanik, 2013tik, saiatzen ari naiz merkataritza herriarekin uztartzen eta alderantziz. Herriak ezagut ditzala Leioako Merkatarien Elkartea eta bere aktibitateak..

3- Zeintzuk dira Elkartearen erronkak momentu hauetan?

Aktibitateak antolatzen ditugu, herrigunetik urrunen dauden auzoak Leioa barruan senti daitezen. Adibidez: 2013ko Gabonetan, konpartsa baten kalejira egin zuen Pinuetatik, guk antolatuta. Auzoarekin kontaktua jartzeko hasiera izan zen, auzotarrak eta merkatariak aspalditik eskatzen ari ziren bezala..

4-Zelan baloratzen duzu Merkataritza Biziberritzeko Plana eta talde horretatik antolatutako ekintzak?

Planari dagokionez, eskertzekoa da Leioako Udalak, Behargintzatik, egin dituen ahaleginak herriko merkataritza dinamizatzeko. Oso lan zaila da, Leioako merkataritza oso sakabanatuta dagoelako. Eskertzekoa da, baita ere, taldeetan lan egiten ari diren merkatarien ahalegina aktibitate agenda prestatzeko.

5- Nola animatuko zenituzke herriko gainerako merkatariak eta ostalariak Leioa dinamizatzen inplika daitezen?

Krisialdi honetan, merkatari bakar baten lana zailagoa da taldeko lana baino. Hainbat eta gehiago izan, orduan eta ideia gehiago, motibazio handiagoa, etab.